



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 29a

70. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/MOC-00022. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita dauden zentral nuklearrak eta erreaktoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalen ezarritakoaren arabera. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-25/MOC-00059. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko administrazio publiko guztiak premiatzen baititu Nafarroako eta Espainiako abeltzaintza-sektorearen eskutik lan egiten jarrai dezaten, iberiar otsoarekiko koexistentziaren premisapean, ingurumen aldetik jasangarria. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala berma dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/MOC-00075. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren bidez, luzamendu bat ezar dezan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen aplikazioan. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-25/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-ikuskatzaitzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizteko lan egiteko. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- 11-25/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan erradiologiako mediku espezialistak egonen direla egunero eta etengabe. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aitortzen du energia nuklearrak funtsezko zeregina daukala hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- 11-25/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan errenta bermatua ikuskatzeko plan bat lehenbailehen onets eta aurkez dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-25/MOC-00022. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita dauden zentral nuklearrak eta errektoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalean ezarritakoaren arabera**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko maiatzaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita dauden zentral nuklearrak eta errektoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalean ezarritakoaren arabera. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du dauden zentral nuklearrak eta errektoreak ixteko egutegiari euts diezaion, Energia eta Klimari buruzko Plan Nazionalean ezarritakoaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean jarrai dezan energia-mix bat ezartzeko, Nafarroan ekoiztutako energia berriztagarrietan oinarritua, zeinek energia-jasangarritasuna eta prezioen egonkortasuna bermatuko duten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen ditu behar diren plan eta estrategiak ezar ditzaten, bermatze aldera ekonomiaren deskarbonizaziora eramanen gaituen energia trantsizioa alderdi sozialetan justua izanen dela eta etorkizuneko belaunaldiei begira ez duela ezbaian jarriko ongizate-estatu oso bat".

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/MOC-00059. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko administrazio publiko guztiak premiatzen baititu Nafarroako eta Espainiako abeltzaintza-sektorearen eskutik lan egiten jarrai dezaten, iberiar otsoarekiko koexistentziaren premisapean, ingurumen aldetik jasangarria**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko maiatzaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko administrazio publiko guztiak premiatzen baititu Nafarroako eta Espainiako abeltzaintza-sektorearen eskutik lan egiten jarrai dezaten, iberiar otsoarekiko koexistentziaren premisapean, ingurumen aldetik jasangarria. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko administrazio publiko guztiak premiatzen ditu Nafarroako eta Espainiako abeltzaintza-sektorearen eskutik lan egiten jarrai dezaten, iberiar otsoarekiko koexistentziaren premisapean, ingurumen aldetik jasangarria, ukituta egon litekeen abeltzaintza-sektoreari lagun egiteko neurriak eta jarduketak indartuta”.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala berma dezan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko maiatzaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen exekuzio eta bideragarritasun integrala berma dezan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea berma dezan, zalantzarik gabe, Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasea osorik egiten dela, bermatuz Erriberako 70.000 biztanlek baino gehiagok kalitatezko ura kontsumitzen ahalko dutela, eta 21.522 hektarea ureztatzen ahalko direla, horri esker aurrera

egin ahal izanen baitugu erkidegoaren lurraldegarapen jasangarrian eta Erriberaren garapen ekonomikoan.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea publikoki ziurta dezan, txosten tekniko egiaztagarrien bidez, ltoizko urtegiko ur-baliabideak nahikoak direla eta proiektua teknikoki eta juridikoki bideragarria dela, egungo eta etorkizuneko erabiltzaileen konfiantza indartzuz.

3. Nafarroako Ubidea Nafarroa osorako estrategikoa eta egituratzailea dela berrestea, eta haren garapena irizpide tekniko, sozial eta interes orokorreko irizpideekin amaitzeko beharra berrestea”.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00075. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren bidez, luzamendu bat ezar dezan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen aplikazioan**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2025eko maiatzaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuaren bidez, luzamendu bat ezar dezan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen aplikazioan. Erabakia eragin zuen mozioa Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu zuen, eta 2025eko maiatzaren 20ko 66. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du:

1. Luzamendu bat ezar dezan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legearen aplikazioan, maila txikienetako eta diziplina kolektiboetako ziurtapenek behar besteko denbora izan dezaten araudira egokitzeko.

2. Kirol-sare teknikoaren azterlan bat egin dezan, sektorearen errealitatea ezagutzeko eta kirol-sektoreko arlo bakoitzeko teknikarien beharrak ikusteko.

3. Bi urteko epean lanerako plan bat sor dezan, zeinean ezarriko baitira NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren eta kirol-federazioen arteko erantzukizunak, eta jasoko baitira, orobat, entrenatzaile-monitore izateko gaikuntzako beharrezko ziurtapena lortzeko federazio horiek emanen duten prestakuntzaren epeak eta erregulazioa.

4. Gaikuntzen Dekretua abiaraz eta argitara dezan, dagokion xedapen iragankorra aldatuta horretarako, eta, horrela, egokitzapen-aldi bat ematea federazioei, ezarpena eraginkorra izan dadin”.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-ikuskatzailetzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizteko lan egiteko**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ezetsi egin du Domingo González Martínez jaunak aurkeztu mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan-ikuskatzailetzaren arloko eskumenak eskualdatzea eska diezaion Espainiako estatuko Gobernuari, lan-istripuen kopurua murrizte-

ko lan egiteko. Mozioa 2025eko apirilaren 16ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-25/MOC-00066. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita berma dezan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan erradiologiako mediku espezialistak egonen direla egunero eta etengabe**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ezetsi egin du Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berma dezan Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleetan erradiologia-ko mediku espezialistak egonen direla egunero eta

etengabe. Mozioa 2025eko apirilaren 30eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-25/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jen- daurrean aitortzen du energia nuklearrak funtsezko zeregina daukala hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aitortzen du energia nuklearrak funtsezko zeregina daukala hornidura elektriko seguru eta egonkorra berma-

tzeko. Mozioa 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-25/MOC-00076. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita Nafarroan errenta bermatua ikuskatzeko plan bat lehenbai- lehen onets eta aurkez dezan**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 22an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Nafarroan errenta bermatua ikuskatzeko plan bat lehenbailehen onets eta aurkez dezan. Mozioa 2025eko maiatzaren 20ko 66.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias





